

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Javier Telleria Retolaza

Elgeta, Gipuzkoa
(1940)

Aurkibidea



Biografia



1940an jaio zen Uriarte auzoko Sestogain baserrian. Aita bertakoa zuen eta ama auzo bereko Altube baserrikoa. Hiru seme-alaba izan zituzten. Zazpi urterekin hasi eta hamalau urtera arte ibili zen Elgetako eskolan, mojekin pare bat urte eta gero eskola nazionalan. Elgetan bukatu ostean, Zumarragan osaba baten etxean bizi zela, klase partikularrak hartu zituen hiru urtez. Zumarragan zegoela, osaba hojalateroaren laguntzaile gisa ibili zen lanean. Bestela, bere bizi guztia baserrian eman du; esne-behiekin lehenengo, eta okela-behiak eta basolanetan geroago. Elgetako azkenengo baserritarra dela esan daiteke. Idi-proba zale amorratua ere bada.

Zintak

ELG-038

- **Proiektua:** Deba Eskualdeko Ahotsak - Elgeta.
- **Elkarrizketatzailea(k):** Elortza, Kepa
- **Data:** 2009-06-25
- **Iraupena:** 60 min
- **Euskarria:** MiniDV
- **Kodifikatzailea:** Goiria Mendiola, Nerea
- **Transkribatzailea(k):** Elexpuru, Juan Martin - Goiria Mendiola, Nerea

Pasarteak

1. Eskolan non ibili zen

- **Erref:** ELG-038/003
- **Iraupena:** 0:02:41. **Hasi:** 00:01:28. **Bukatu:** 00:04:09
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak

Laburpena:

<p>Sei-zazpi urtetatik 14 urtera arte ibili zen eskolan. Lehenengo mojekin ibili ziren eta gero eskola nazionalera joan ziren. Han maisu birekin ibili ziren, Gasteizko Fortunato eta Jose Fern´ndez eibartarra. 14 urterekin Zumarragara joan zen partikularrera; han batez ere matematika eta kontuak

ikasi zituen Segundo maisuarekin, 18 urtera arte. Astea han pasatzen zuen osaba-izeba batzuen etxean eskolak goizez eta arratsaldez baitziren.</p>

2. Baserriko lanak: esne behiak eta soroak

- **Erref:** ELG-038/004
- **Iraupena:** 0:01:28. **Hasi:** 00:04:09. **Bukatu:** 00:05:37
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

Laburpena:

<p>Esnetarako ganadua zuten etxean. Idiak ere bazituzten. Idiekin etxeko lana eta basoko lana egiten zuten. Inguruko zelaia soroak ziren garai batean eta beraiek lantzen zituzten. </p>

3. Esne-saltzaile

- **Erref:** ELG-038/006
- **Iraupena:** 0:00:48. **Hasi:** 00:05:52. **Bukatu:** 00:06:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera

Laburpena:

Bere diru-iturri nagusia esnea izan da. Eibarrera eramaten zuten esnea, Leon esne-saltzailearen laguntzaz. Gero beranduago kotxearekin ama eta biak joaten ziren.

4. Eguneko 150 litro esne

- **Erref:** ELG-038/010
- **Iraupena:** 0:03:02. **Hasi:** 00:09:22. **Bukatu:** 00:12:24
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera

Laburpena:

<p>Okela-behiek ez dute horren besteko lanik ematen esne-behiekin alderatuz gero. Eguneko 100-120 litro esne izaten zituzten. Auzokoaren esnea ere jasotzen zuten eta azkenerako 150 litro lortzen zituzten. Egunean sobratzen zitzaiena gozo-denda batera eramaten zuen. Legea ezarri aurretik Eibarren esne-saltzaile asko egoten ziren. Bere ustez lege berriarekin, esnea zentralera eramanda, ez zuen merezi diru aldetik.</p>

5. Eskolan erdara, dotrina euskaraz eta erdaraz.

- **Erref:** ELG-038/013
- **Iraupena:** 0:00:53. **Hasi:** 00:18:12. **Bukatu:** 00:19:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

Laburpena:

Euskaraz aritzeagatik ez zuten zigorrik jasotzen. Dotrina euskaraz eta erdaraz ikasi zuten. Zumarragara joan zenean 14 urterekin ikasi zuela zer bait dio.

6. Jolasak: pilota, arbi-bolaka

- **Erref:** ELG-038/014
- **Iraupena:** 0:02:05. **Hasi:** 00:19:05. **Bukatu:** 00:21:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak

Laburpena:

Mutikotan pilotan, arbi-bolaka... aritzen ziren lagunekin. Arbi-bolaka zer den azaltzen du. Zumarragan pilotan aritzen zirela dio. Mutikotan ibiltzen ziren batzuen izenak aipatzen ditu.

Transkripzioa

-Zuek eskola-garaixan ze jolas-klase egiten ziñuen?
-Jolas-klasiak hamen eitten giñuzenak ba, zapatutan edo domeketan juntatzen giñazen mutikuak pelotan ein o lokesea, ta arbi-bolaka ta.
-Arbi-bolaka?
-Arbixak harrapau solotan kalia botatzeko; ba holakotxe tontokeriak. Baiña ostian deporteik...
-Ez daukat sekula entzunda.
-Arbi-bolaka sekula ez dozu entzun? Guk eitten giñuzen, han arbi-soluak, lehen arbixa egoten zan, nabua, bakizu, arbixa. Joan eta mutikuak grupuak [etaratzen giñen]. Grupuak bata bestiai arbixak etara soluan, ta bata bestiai jaurti ta jote. Holaxen.
-Arbixa, arbixa...
-Sorokuak?
-Sorokuak, ganauak jaten dabenak.
-Basarritarra ez zan haserreketan?
-Baiña ez pentsau danak etaratzen giñuzen. Bat edo bi etaratzen giñuzen hor kale inguruan zagozenak eta. Lehen hor daniel zeuan kalia basarria. Ganauak, bata behi bi bestiak bat. Ta ostian guk pelotan puxkat. Fubolik eta, futbol asuntuik eta ez.
-Orduan arbixok atara eta bata bestiai bota?
-Bata bestiai bota. Zeozetan ibilli.
-Arbixak buruan emon ezker...
-Arbixak?
-Narrukuak be bai galantak [...] emon, e! Jolin! Baiña ez. Baiña ez. Ostian guk deporteik eskolako denporan.
-Eta horri esaten zontsein arboroka?
-Arbi-bolaka. Ta gero Zumarran ba pelotan eitten giñuan gehixao. Kuadrillia juntatzen giñan pelotan eta gero bizikletan be ibiltzen giñan. Baiña...
-Eta txirikilletan eta holako jolasetan zuek?
-Txirikilletan eta jokatzen giñuen baiña gutxi hemen. Aste Santuan, hortxe Garizuma zerian igual eitten zan, baiña guk gutxi. Gu oso gutxi. Gu asko ibiltzen giñan goittibeheran. Goittiberak badakizu zertzuk dien? Karruak, horrek karruok? Gu horrekin ibiltzen giñan.

-Badaukatzue erripa ederrak hemen.
-Hemen goittik behera guk hartu giñuzen narrukuak hemen. Baiña karruak bixkorak. Hor goittik joaten zien, zienian joaten zienak kotxiak, e. [juegobolosekin?], karruakin eta. Grupo bat egon giñan, booo. Kuadrilla bat, Abadeko Jabier eta Idigoras eta.

7. Baserrian beti morroiak edo neskameak

- **Erref:** ELG-038/015
- **Iraupena:** 0:00:50. **Hasi:** 00:21:10. **Bukatu:** 00:22:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:

<p>Baserrian beti izan ditu bi morroi. Bi morroi eta neskame bat ezagutu ditu etxean. Baserri handia izanik lan asko zuten eta. Etxean gurasoak, izeba bat eta neba-arrebak bizi ziren.</p>

Transkripzioa

-Esan dostazu mutikua ziñanian morroiak eta egoten ziela.
-Morroiak, gurian morroi bi egoten zien. Morroi bi ta kriadia be bai, kriadia ezaututa nao ni, Basili; oindiokan bizi da.
-Orduan lan asko egongo zan etxe hontan, ezta?
-Bo. Hamen basuan, hamen biharra eitten zan... Labrantzia, dana labrauta. Ehun anea gari hartzen zien, e. Artua beste hainbeste, ta babia... Hamen labrau eitten zan! Booo.
-Eta zenbat jente bizi ziñaten ba?
-Gu bizi giñan aitta ta ama, ta izeko bat, aittan arreba bat solteria, gerratian aitta ta ama hil zotsezenak hamen. Oindio gaztia zan. Gaztia ba, ya hamasei urtekin eskua moztu ta, gero biolau ta... Ba. Ein zotsezen kristonak. Ta haxe bizi zan. Berak josten eitten zeban kalia. Jostuna zan. Ha zan aittan arrebia.

8. Amona eta aitona gerran hilda

- **Erref:** ELG-038/016
- **Iraupena:** 0:01:38. **Hasi:** 00:22:00. **Bukatu:** 00:23:38
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:

Gerran amandrea eta aitajauna galdu zituen, etxean bertan hil zituzten moroek. Izekori atzamarrak zelan moztu zizkioten kontatzen du. Gurasoak eta arreba nagusia (jaioberria) Bizkaira, Arte aldera joan ziren ganadu eta guzti. Etxean amandrea, aitajauna eta izeko geratu ziren. Amandrea eta aitajauna hil zituzten.

Transkripzioa

- Zuk senide asko galdu zittun gerran?
- Nik senidiak, aittajauna eta amandria.
- Gerran...
- Gerra denporan, frentian, moruak hil zittuen, hamentxe bertan gaiñera.
- Etxian.

- Ta hametik eta Aranburu bittartian izekori eñ zotten eskua moztu, holaxe. Aitteri ifiñi eskua, buruan eskua, matxetiakin jo hiru eskuan kendu eta neskatoa aitta eta ama hilda hamen eta neskatoa joan zuan Aranburura, hamendik gottik behera. Eta aitta ta ama zaozen nere arrebía, bere arrebía jaiota zeon orduantxe sei-zazpi bat hillabetekua, Libe, nausixa. Eta harekin ebakuau ein ziran Bizkaira. Ganauak eta danak hartu eta Bizkaira fan ziran harek.

-Bizkaiko ze parteta? Hor Arrazola ingurura-edo?

- Ez, ez, ez. Harutxau, egon ia akordetan naizen. Gu han oin dala denpora gitxi egon giñan ba. Hori dao Deriotik...

- Ixe Bilbon ya.

- Bai, bai, Bilbotik bastante aurrera sartute ezker , zelan esate otsen hari, Artea! Artea, Arteatik aurreratxuau joanda.

- Eta ganauek eta danak eroan zittuen.

- Bai, ganauek eta danak eruan zittuen, frentian hartuta ez...

- Orduan etxia hutsik geratu zuan.

- Etxia hutsik geratu zuan, etxia geratu zan aitta eta ama, bueno nire aittajauna eta amandria, aittan aittanak ta izekua. Tia, gaztia, neskatura, hamasei urtekua.

- Eta aittajauna eta amandria garbittu...

- Eta bestia zertu ein zan, eta aurreratu ein zan neskia. Halantxik izan ziran...urtekuak, gero bestiak orduntxe etorri ziran, frentia sartu zanian, pixkat bajatu zanian itxuria orduntxe sartu ziran atzera be honuntz. Bueno, orduan frentian gurian zera be bai beste arreba bat be bai, aittan arreba bat Uruko tio (...) eta harek be bai, harek ere han zian danak e.

9. Etxea frontearen erdi-erdian

- **Erref:** ELG-038/017
- **Iraupena:** 0:01:02. **Hasi:** 00:23:38. **Bukatu:** 00:24:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:

<p>Frontea etxetik bertan zeukaten. Beraiek erdi-erdian zeuden. Hain hurbil zeuden, milizianoak-eta beraien etxean egoten zirela, gosalduta eta segidan trintxeran egoteko.</p>

Transkripzioa

- Eta gurian hamen etxe aurrian zeuan frentia. Hementxe egoten ziran zerok, gorrixok. Eta hamendik Asentziara deskargatzen zaben.

- Eta zuok erdixan.

- Gu hamentxe erdixan. Gure amak esaten zauen, hamen honen hormionen azpitan zemat obus sartuta ete dauzen. Obusak esplotatzeke. Obusak.

- Esplotatzeke?

- Esplotatzeke egongo dirala mordua hamen azpitan.

- Ondioik be e?

- Hamen jo eta esplotau bazittuen honezkero [...] zeuan dana, handik.

- Horrek desarmatu in biharko dozuez badaezpada.

- Ta gabaz-eta itte zuen argirik-eta ez sartzeko lirtanak-eta mantakin tapau argirik ez ikusteko. Milizianoak eta danak hona etortzen ziran armozatzea-eta. Eta tiroteua hasten zanian, hamendik, hortik estarta bide bat zeuen behetik gora, eta han goiko zeretara faten ziran, trintxeretara ta han dale

ke te pego. Hamentxe frentia hortxe gure etxe albian eta frentia hortxe bestian. [...] hona hamentxe. Hori zan ba nik hirurogeita hamabi urte dakaz ba horixe “el año treinta y seis, treinta y siete”.

10. Janaria militarrentzako

- **Erref:** ELG-038/020
- **Iraupena:** 0:01:25. **Hasi:** 00:25:35. **Bukatu:** 00:27:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

Laburpena:

<p>Errazionamendua Aldundiari ordaintzen zitzaiola gogoratzen du. Militarrei garia eta patata ematen zitzaien. Lehen han mikeleteak egoten zirelako. Gurasoek kontatutakoa gogoratzen duela dio.</p>

11. Idi-probak I

- **Erref:** ELG-038/025
- **Iraupena:** 0:01:16. **Hasi:** 00:34:25. **Bukatu:** 00:35:41
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kirola » Herri-kirolak

Laburpena:

<p>Idi-probak oso gustuko izan ditu beti Javierrek. Ikustera herritik kanpo ere joaten ziren, apustuak egitera-eta. Bere auzoko batekin joan izan da askotan. Bizkaia aldera asko joan izan dira, Gipuzkoara Aiara baino ez ziren joaten.</p>

Transkripzioa

- Hasi lehenao, ni ezkonbarritan andriakin Abadiñora ta. Andria ez [dako] gustatzen, andria kontrarixua da.
- Idi-probena?
- Hari ez [dako] gustatzen.
- Gero gu beste bat ibiltzen giñen, hau Migel eta beste bat, Eugenio Gorosabel, Arrotakua. Ha zan, ha zan fenomenua. Gu harekin faten giñen, bueno, hor Bixkai guztia pasatzen giñuan hori.
- Zeuek eruaten ziñuzen irixiak?
- Ez, ez. Geuk iririk ez. Gu probak ikustera faten giñen. Ikustera.
- Apustuak eittera ta hola?
- Bai, apustua ta. Guk iririk sekula ea dogu euki. Migelek bai. Migelek berak ssplikauko dotsu, berak euki zittuan irixak.
- Baiña zuk esan dozu etxian irixak bazeuzkazuela.
- Irixak bai baiña guk probarakoik ez. Ez, ez.
- Migelek bai.
- Migelek eitten zeban proban. Esplikauko dotsu berak.
- Eta hamen nun eitten zien probarik...
- Bueno, oin probia alde guztietan daukazu.
- Baiña zuek hasi ziñatenian?
- Hasi giñanian guk gehixena Abadiño. Gero Bixkaira, Bixkaira be bai,

Gatika, Bakio, Mungia, Artea.

- Eta Gipuzkoa aldean ez?

- Gipuzkoan Aia unikamente. Aia. Harutz ez nai pasau sekula. Aiatik harutz ez naiz sekula pasau. Aia. gero Markiña-Etxebarri. Hamentxe, hamentxe.

12. Idi-probak II

- **Erref:** ELG-038/027
- **Iraupena:** 0:03:55. **Hasi:** 00:35:55. **Bukatu:** 00:39:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kirola » Herri-kirolak

Laburpena:

<p>Bera gaztea zenean Elgetan idi-probak egiten ziren. Gaur eguneko giroa ez da berdina. Lehen diru asko jokatzzen zen, jendea apustuak egitera joaten zen batik bat. Idirik onenak Berriatukoak zirela dio. Beste hainbat ere aipatzen ditu. Gaur egungo hainbat kontu. Bizkaiko lurraldea da idi-probetarako hobeto prestatu dagoena.</p>

13. Idi-probak III

- **Erref:** ELG-038/028
- **Iraupena:** 0:01:32. **Hasi:** 00:39:50. **Bukatu:** 00:41:22
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kirola » Herri-kirolak

Laburpena:

<p>Idi-probek zelan funtzionatzen duten kontatzen du, "kintopekua"... Idiek dozena bat urte baino ez dute irauten.</p>

14. Idi probak IV

- **Erref:** ELG-038/029
- **Iraupena:** 0:04:28. **Hasi:** 00:41:22. **Bukatu:** 00:45:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kirola » Herri-kirolak

Laburpena:

<p>Idi probetan dopina existitzen dela dio, dopin-frogak zelan egiten diren ere kontatzen du. Idi asko esfortzuaz eta drogaren efektuaz hil izan dira.</p>

15. Osabarekin iturgin lanetan

- **Erref:** ELG-038/035
- **Iraupena:** 0:01:01. **Hasi:** 00:57:41. **Bukatu:** 00:58:42
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Negozioak, dendak

Laburpena:

<p>Zumarragan zegoela, osabarekin iturgin lanetan ibili zen. Bizikletan joaten ziren, erreminta-kutxa parrillan jarrita.</p>

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2025-12-21

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com